

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

**Aldaketa Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean
behin betiko onspena**

Udalbatzak, 2024ko urriaren 30eko Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Trakzio-mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketari (ALHAOren 2024ko azaroaren 11ko 128. zenbakian argitaratua), eta ez zen erreklamaziorik aurkeztu legezko epearen barruan; erabaki hori behin betiko bihurtuko da, toki ogasunak arautzen dituen foro aldundiaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu arauemaileak xedatutakoarekin bat.

Toki ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu arauemailean aurreikusitakoa betez, osorik argitaratzen da onartutako ordenantzaren testua, behin betiko bihurtuta.

Lantziegon, 2024ko abenduaren 26an

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTINEZ DE ICAYA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Lantziegoko Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 22.1.c) artikuluan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina onesteko irailaren 29koa 6/2021 Araugintzako Foru Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritz, Ordenantza honen arabera eskatuko du Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, zein zuzeneko zerga baita.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA-EGITATEA**3. artikulua**

Zerga egitateak dira:

1. Bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titularitatea, edozein mota eta kategoriatako dela ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honetakoa bada.

Autokarabana eta etxebizitza gisa erabiltzeko egokitutakoak. Turismotzat joko dira eta potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute zerga.

2. Ibilgailua zirkulaziorako gai da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta badago, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko erabilgarritzat joko dira.

3. Ez daude zergaren pean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoiak eta erdi atoiak, 750 kg arteraino zama erabilgarria dutenak.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**4. artikulua**

Hauek zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak

b) Beste herrialde batzuetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Arautegi Orokorraren A idatz zatiak aipatzen dituen mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak. "350 kg baino gutxiagoko tara duen ibilgailua, eraikitzeko moduagatik lurralde lauan 45 km/h abiadura ezin badu gaintu eta disfuntzio edo ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko berariaz eraiki edo proiektatu bada (ez da nahikoa moldatzearekin). Gainerako ezaugarri teknikoak dagokienez, hiru gurpileko ziklomotorrekin parekatuko da".

Era berean, zergaren ordainketatik salbuetsiko dira ezinduen izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezgaitasuna duten pertsonatzat:

a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun-maila aitortuta duten pertsonak, baldin eta mugikortasun murriztua badute; hau da, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak, desgaitasun-maila aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, diosenaren arabera, Mugikortasun Jardueretako Mugen azpi-baremoan (BLAM) ehuneko 25eko edo hortik gorako mugikortasun-muga lortu dutenak.

b) Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatzen diren eta mugikortasun murriztua duten pertsonen ez zaie 14 zaldi fiskaleko muga aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago, baldin eta mugikortasun murriztua izateko egoeran badaude, eta Mugikortasun Jardueren Mugak izeneko azpi-baremoan (BLAM), urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan, desgaitasun-maila aitortzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenean, ehuneko 75eko edo hortik gorako mugikortasun-muga lortzen badute.

Mugikortasun murriztua duten pertsonatzat hartuko dira honakoak: urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak, desgaitasun-maila aitortu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, diosenaren arabera, Mugikortasun Jardueretako Mugaketen azpi-baremoan (BLAM) ehuneko 25eko edo hortik

gorako mugikortasun-muga lortzen dutenak; abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskin gisa agertzen den baremoko A, B edo C letretan deskribatutako egoeretako batean daudela egiaztatzen dutenak (1971/1999 Errege Dekretua, desgaitasun-maila adierazi, aitortu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa); edo aipatutako baremoko D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak, aipatutako araudia ondorengo indarrean sartu aurretik aplikatzeagatik: urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua, desgaitasun-maila aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena.

f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g) Nekazaritzako ikuskatze txartela duten traktore, atoi, erdi atoi eta makinak.

Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuesenez gozatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren arrazoa adieraziz. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

1. apartatuaren e) letraren bigarren lerroaldean xedatutako salbuespenari dagokionez, ezintasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du interesdunak, organo eskudunak egina, bai eta ibilgailuaren zertarakoa justifikatu udalari ere, udalak berak zerga ordenantza honetan xedatutako eran.

2. Ordenantza honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenek arau izaera dute, administrazio ekintza bidez emango dira eta udal organo eskudunak ebartziko ditu. Salbuespen horiek eskatu ondorengo zergalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Udalari haiek onartzeko eskatzen dioten interesdunek ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onurarako arrazoiak adieraziko dizkiote, eta salbuespenaren udal ziurtagiria Trafiko Buruzagitzan aurkeztuko dute matrikula izapidetzean edo udalerrian ibilgailuari alta ematean. Udalak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Ezinduek gidatutako edo haiek garraiatzeko ibilgailua salbuesteko interesa dutenek (4.1.e artikuluan zehazten dira) hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

— Ezgaitasunaren ziurtagiria eta, izanez gero, organo eskudunak (Arabak: Gizarte Ongizaterako Foru Araua) emandako mugikortasun urriaren ziurtagiria.

— Zinpeko aitortpena, ibilgailu hori ezinduak baino ez duela erabiliko aitortuz.

— Hala dagokionean, ibilgailua bere ezintasunera moldatu dela egiaztatzea, fitxa teknikoan aipamena eginda edo moldaketa egin duen lantegiaren ziurtagiri bidez.

5. artikulua

a) Trakzio mekanikozko ibilgailuen zergaren kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute, bost plaza edo gehiagoko turismo bakar baten alde, baldin eta ibilgailu horien titulartasuna ugaritzat jotzen den familiako kideren batena bada.

b) Trakzio mekanikozko ibilgailuen zergaren kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute ziklomotorrek, trizikloek, kuadrizikloek eta motozikletek; turismoeak, furgoneta arinek, 8 leku baino gehiagoko ibilgailuek eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuek, DGTren ibilgailu erregistroan

honela sailkatuek: bateriazko ibilgailu elektrikoa, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (REEV), ibilgailu elektriko hibrido entxufagarri 40 kilometro baino autonomia handiagoko eta erregai pilako ibilgailuek.

c) Trakzio mekanikozko ibilgailuen zergaren kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute ibilgailuen erregistroan honela sailkatzen diren turismo, furgoneta arin, zortzi leku baino gehiagoko ibilgailu eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuek: ibilgailu hibrido entxufagarri 40 Km baino autonomia gutxiagokoak, ibilgailu hibrido ez-entxufagarriak, gas naturalez bultzatutako ibilgailuak, gas naturalez (GNC eta GNL) edo petrolio gas likidotuz (GLP) bultzatutako ibilgailuak.”

Hobarien taula hau aplikatuko da, familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera, familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera:

Familia errenta estandarizatu / Renta familiar estandarizata	Hobariaren ehunekoa / Porcentaje de bonificación		
	Familia ugariak / Familia numerosa	Motor Elektrikoak / Motor Electricos	Karburante mota / Tipo combustible
13.000 euroraino / Hasta 13.000 euros	90%	90 %	50%
13.001 eurotik 15.000 euroraino / De 13.001 a 15.000 euros	75%	75%	25%
15.001 eurotik 18.000 euroraino / De 15.001 a 18.000 euros	50%	50 %	10%

Betekizunak:

Hobari horiez baliatu ahal izateko, turismoaren titularrek hobari horiek emateko eskaera egin beharko dute, dokumentazio hau aurkeztuta:

- Eskabidea, behar bezala sinatuta.
- NAN/AIZ
- Familia-unitateko kide guztien PFEZaren aitortpena edo aitortpen hori aurkeztu beharrik ez izatearen egiaztatagiria. Azken horretan, azken ekitaldian jasotako errenten egiaztatagiria aurkeztu beharko da.

Epeak

Hobariak aurreko zergaldiko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldiari eskatu beharko dira.

FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUA KALKULATZEKO METODOA

Familia-errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen baliokidetasun-koefizienteaz zatitzearen emaitza izango da (dagozkion koefizienteak batuko dira):

Subjektu pasiboa / Sujeto pasivo	Koefizientea / Coeficiente
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin / Con Cónyuge o pareja de hecho	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe / Sin cónyuge o pareja de hecho	1,3
Genero indarkeriaren biktima / Víctima de violencia de género	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza / Cada hijo/a integrante de la unidad familiar	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: =>% 33 / Alguno de los miembros de la unidad familiar con discapacidad =>33%	0,3

Aurreko b) eta c) puntuetan adierazitako hobariak behin bakarrik eskatu behar dira, eta lehenengo matrikulaziotik 5 ekitalditan zehar aplikatuko dira.

Ibilgailuaren azterketa teknikoko txartelaren fotokopia aurkeztuko da.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK**6. artikulua**

Zerga honen subjektu pasiboak dira ibilgailu baten trakzio mekanikoko zirkulazio baimenean titular moduan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatutako erakundeak.

V. KUOTA**7. artikulua**

- Tarifen taularen arabera eskatuko da zerga. Eranskinean jaso da taula hori.
- Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailua furgonetatzat hartuko da baldin eta turismo bat egokitzen bada garraio mistorako, pertsonak eta gauzak eramateko, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz, dela bestelako aldaketak eginez, betiere ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatu gabe. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusen zerga ordainduko du.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiari dagozkion zerga ezarriko zaio.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoi kasuan, beren edukiera dela-eta matrikulatzera behartuta ez badaude, zirkulaziorako egokitzen joko dira Industria Ordezkaritzak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan daudenean.

e) Makina autopropulsiatuek, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeenez, traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

8. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3. Ibilgailu bat lehen aldiz eskuratzen bada, zergaren kuota ibilgailuaren eskuratze egunetik abenduaren 31ra arteko aldiaren proportziozkoa izango da, edo eskuratze egunetik baja datara arteko aldiaren proportziozkoa, hala badagokio.

4. Ibilgailu bati baja ematen zaionean, Zergaren kuota urtarilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan baja eman arteko aldiaren proportziozkoa izango da.

VII. KUDEAKETA

9. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

10. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

11. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

12. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

13. artikulua

Matrikulazio berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta 30 egun balioduneko epean:

- Zirkulazio baimena.
- Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- NANa edo IFK.

14. artikulua

1. Trafiko buruzagitzan matrikulazioa eskatzen dutenek, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, aldeztatik aurrerik egiaztatatu beharko dute zerga ordaindu izana.

2. Ibilgailuen titularrek trafiko buruzagitzari aldeztatik frogatu beharko diote aurkeztu zaien azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatu badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatu badute; edo ibilgailuari baja ematen badiote. Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja emanez gero, ez dago aipatutakoa frogatu beharrik.

3. Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, aldeztatik Zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik, ibilgailu batzuk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik salbuesita egon dira uztailearen 19ko 44/1989 Foru Arauaren, zerga horri buruzkoaren, 2.1.d) artikularen testu zaharrean ezarritakoaren arabera. Ibilgailu horiek ez badute betetzen foru arau horrek finkatutako 2.1.d) artikularen testu berrian ezarritakoa, testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea edukiko dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

Ordenantza honetan jasotakoez dauden bestelako hobariren bat eman bazaie, ordenantza honetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eranskinarekin batera, 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

**ERANSKINA
TARIFAK****A) Turismoak:**

• 8 zerga fiskaletik beherakoak	17,34 €
• 8 eta 11,99 zaldi fiskal artekoak	46,81 €
• 12 eta 13,99 zaldi fiskal artekoak	98,41 €
• 16 eta 19,99 zaldi fiskal artekoak	123,07 €
• 20 zaldi fiskaletik gorakoak	160,57 €

B) Autobusak:

• 21 eserlekutik beherakoak	114,41 €
• 21 eta 50 eserleku artekoak	162,93 €
• 50 eserlekutik gorakoak	203,67 €

C) Kamioiak:

• 1.000 kilotik beherako zama erabilgarria dutenak	58,07 €
• 1.000 eta 2.999 kilo arteko zama erabilgarria dutenak.	114,41 €
• 2.999 kilotik gorako eta 9.999 kilo arteko zama erabilgarria dutenak	162,93 €
• 9.999 kilotik gorako zama erabilgarria dutenak	203,66 €

D) Traktoreak:

• 16 zerga fiskaletik beherakoak	24,27 €
• 16 eta 24,99 zaldi fiskal artekoak	38,13 €
• 25 zaldi fiskaletik gorakoak	114,41 €

E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek herrestan eramandako atoiak eta erdi-atoiak:

• 1.000 kilotik beherako zama erabilgarria dutenak	24,27 €
• 1.000 eta 2.999 kilo arteko zama erabilgarria dutenak	38,13 €
• 2.999 kilotik gorako zama erabilgarria dutenak	114,41 €

F) Beste ibilgailu batzuk:

• Ziklomotorrak	6,08	€
• 125 cc-rainoko motozikletak	6,08	€
• 125 cc-tik gorako eta 250 cc-rainoko motozikletak	10,39	€
• 250 cc-tik gorako eta 500 cc-rainoko motozikletak	20,81	€
• 500 cc-tik gorako eta 1.000 cc-rainoko motozikletak	41,61	€
• 1.000 cc-tik gorako motozikletak	83,22	€